

urdaibai

basque reserve



Ezagutu Urdaibai bizikletan
Descubre Urdaibai en bici



urdaibai
basque reserve

Ongi etorri

Urdaibaiko zikloturisten eskaintza aurkezten dizuegu, gure eskualdeko txoko ederrenetako batzuk erakutsiko dizkizueten bizikleta-bideak.

Horretarako, 18 ibilbidek osatutako lehen eskaintza diseinatu dugu, eta, erabiltzaileen profilaren arabera, 3 mailatan sailkatu ditugu:

Os presentamos la oferta cicloturista de Urdaibai, una serie de rutas ciclistas que os descubrirán algunos de los rincones más bellos de nuestra comarca.

Para ello hemos diseñado una primera oferta compuesta por 18 rutas que hemos clasificado, según el perfil de las personas usuarias, en 3 niveles:

BTT ibilbideak



Rutas BTT

Maila bakoitzaren barruan, zuen neurrira egindako ibilbidea aurkituko duzue (ezagutu nahi duzuen ingurunearen, zailtasun-mailaren eta abarren arabera).

Gogoratu Urdaibaiko Biosfera Erreserban zaudetela, natura, kultura eta paisaia balio handiko gune batean, non ingurunea eta gizakia harmonian bizi diren.

Turismo jasangarriaren Europako Gutunarekin bat eginda, urrats berri bat eman eta eskaintza berri hau diseinatu nahi izan dugu, Urdaibai bizikletaz gozatzeko aukera izan dezazuen.

Errepide ibilbideak



Rutas por carretera

Dentro de cada uno de los perfiles, encontraréis la ruta a vuestra medida (según el entorno que queráis descubrir, el nivel de dificultad...).

Recordad que os encoentrais en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, un espacio de gran valor natural, cultural y paisajístico donde medio y ser humano conviven en armonía.

Adheridos a la Carta Europea de Turismo Sostenible, hemos querido dar un nuevo paso y diseñar esta nueva oferta, para que podáis disfrutar de Urdaibai en bici.

Familia ibilbideak



Rutas en familia

Aholkuak

- Ibilbide hauek ez daude seinaleztatuta. Erabili GPSa edota jaitsi zure smartphonerara tracka ikusteko app-en bat.
- Erabili beti kaskoa.
- Errespetatu itzazu oinezkoak, lehenasuna baitute.
- Eraman ura, janaria eta telefonoa. Eta udan ez ahaztu eguzkitarako babesa (krema).
- Gomendagarria da konponketak egiteko beharrezko materiala eramatea.
- Errepideko bideak erabiliz gero kontu handiz ibili, batez ere trafikoko handiko egunetan. Errespetatu itzazu trafikoko seinaleak eta zirkulazio noranzkoak.
- BTT ibilbideak egiten dituzunean itxi irekitzen dituzun ataka eta hesiak.
- Larrialdirik izanez gero deitu **112 SOS DEIAK** zenbakira.
- Utzi kotxea aparkatuta eta mugitu garraio publikoan. Eskualdean badago BIZKAIBUS zein EUSKOTREN zerbitzua. Kontsultatu itzazu ordutegiak:

Bizkaibus

web.bizkaia.eus /es/web/bizkaibus
94 612 55 55

EuskoTren

www.euskotren.eus
94 433 33 33

- Hauek dira eskaintza honetako abiapuntuak: Iparragirren eskultura (Gernika-Lumon), Kortezubiko aparkalekua, Muxikako Kultur-etxe aurrea, udaletxeako plaza Gautegiz-Arteagan, Lamerako parkea Bermeon eta Mundakako tala. Hala ere, ibilbide zirkular zein lineala pasatzen den edozein puntu izan daiteke abiapuntu.
- Gure webgunean duzu herriz herriko eskaintza (zer ikusi, zerbitzuak...).

- Estos son los puntos de partida de los recorridos que ofrecemos: escultura de Iparraguirre (en Gernika-Lumon), aparcamiento de Kortezubi, Kultur-etxea de Muxika, plaza del ayuntamiento en Gautegiz-Arteaga, Parke de la Lamera en Bermeo y Talaia de Mundaka. Sin embargo, cualquier punto por el que pase un recorrido tanto circular como lineal puede ser punto de partida.
- En la web de Turismo Urdaibai tienes la oferta turística de nuestros pueblos. (qué ver, servicios...)

Ekintza finkeoen egutegia

- Oiz erronka / Desafío Oiz
- Bizikleta astea / Semana de la bici
- Lumoko kronoigoera
- Bizkaia mendi igoera
- Mendijaia

+ info

www.aixerrotape.com
www.tropela.eus
Campos Bermeo

Calendario de actividades



Bizikletak konpontzeko eta garbitzeko lekuak
Lugares para arreglar o limpiar las bicicletas






Urdaibaiko bihotzetik

Por el corazón de Urdaibai



01

Km 15	 150m	 1h
----------	---	---



Irteera / Salida: Mundaka
 Helmuga / Llegada: Gernika-Lumo
 Zailtasuna / Dificultad: Baxua / Baja

Mundakako portutik abiatuta eta itsasadarrari jarraituz Gernika-Lumora eramango gaituen ibilbide ederra da hau. Sukarrietan, barnealdeko auzo-bide lasaietatik doa, estuarioko paisaiaren mosaiko aberatsa zeharkatzeko aukera ematen digu, lurra, ura eta aireak eragindako kontraste handiko mosaikoa. Ibilbidean zehar edertasun handiko ikuspegiak eskainiko dizkigu. Deigarria da horien artean Muruetako teileriak eskaintzen diguna, Urdaibaiko txoko ederrenetako bat izanik.

Preciosa ruta que, partiendo del puerto de Mundaka, nos acerca a Gernika-Lumo siguiendo el cauce de la ría. Ya en Sukarrieta, accede a los tranquilos caminos vecinales del interior, permitiéndonos cruzar el rico mosaico del paisaje del estuario, un contraste de tierra, agua y aire. Las vistas a lo largo del recorrido son de gran belleza, sobre todo cuando alcanzamos la tejera y embarcaderos de Murueta, uno de los más bellos rincones de Urdaibai.



ZER IKUSI

- KM 0: Mundaka
- KM 3,5: San Antonio hondartza, Busturia
- KM 5,5: Ekoetxea Urdaibai, Busturia
- KM 9: Muruetako teileria eta kaiak
- KM 15: Gernika-Lumo

QUE VER

- KM 0: Mundaka
- KM 3,5: Playa de San Antonio, Busturia
- KM 5,5: Ekoetxea Urdaibai, Busturia
- KM 9: Tejera y embarcaderos de Murueta
- KM 15: Gernika-Lumo



"IBILBIDEAK URDAIBAICO BIHOTZERA ERAMANGO GAITU. PAREGABEAK IZANGO DIRA IBILBIDEAN ZEHAR AURKITUKO DITUGUN IKUSPEGIAK"


"LA RUTA NOS CONDUCIRÁ AL CORAZÓN DE URDAIBAI, Y EN SU RECORRIDO LAS VISTAS QUE NOS ENCONTRAREMOS SERÁN DE ENSUEÑO"

info+  track



Donejakue bidea eta Arrolako oppiduma

Camino de Santiago y oppidum de Arrola



Irteera / Salida: Gernika-Lumo
 Helmuga / Llegada: Gernika-Lumo
 Zailtasuna / Dificultad: Ertaina-altua / Media-alta

Donejakue Bidea da hemen egingo duguna, baina kontrako norabidean, Gernikatik Astorkiganara. Bidean Arratzuko hariztiz eta Golako ibaiak gozatu ahaliko dugu eta Artzubiko Erdi Aroko zubi ederra zeharkatuko dugu. Pistetatik Arrola mendira igoko gara jarraian. Bertan, Arrolako oppiduma dago, Burdin Aroko gotorleku bikaina. Puntu honetan Urdaibaiko enduroko jaitsiera ezagunenari aurre egin beharko diogu. Arratzun gaudela ez galdu bertako pintxoren bat dastatzeko aukera Ajangizetik Gernikara itzuli aurretik.

Ruta por el Camino de Santiago, en dirección contraria, desde Gernika hasta el alto de Astorkigana, pasando por el robledal de Arratzu y el río Golako, sobre el que se alza el bello puente medieval de Artzubi. Por pistas ascendemos hasta el monte Arrola, donde se encuentra el oppidum de Arrola, de la Edad de Hierro. Iniciamos en este punto el descenso enduro más popular de Urdaibai. Una vez en Arratzu, podremos disfrutar de un popular pintxo, antes de regresar a Gernika por Ajangiz.



ZER IKUSI

- KM 2,7: Ajangiz
- KM 6,7: Artzubiko Erdi Aroko zubia, Arratzu (hariztia eta Golako erreka)
- KM 21: Arrolako oppiduma
- KM 29: Loiola-Arratzu

QUÉ VER

- KM 2,7: Ajangiz
- KM 6,7: Puente medieval de Artzubi, Arratzu (robledal y río Golako)
- KM 21: Oppidum de Arrola
- KM 29: Loiola-Arratzu





Bizkargi eta inguruak

Bizkargi y alrededores



03

Km 41,7	1400m	4h
------------	-------	----



Irteera / Salida: Gernika-Lumo
 Helmuga / Llegada: Gernika-Lumo
 Zailtasuna / Dificultad: Ertaina-altua / Media-alta

Ibilbide zirkular honetan, gure eskualdeko tontorrik ezagunenetako batera igoko gara: Bizkargi mendira, Txorierrri eta Ibaizabal haranen ikuspegi ederra eskainiko diguna. Gernikatik abiatuta, Muxikara joango gara Bilikariotik (Donejakue bidea), eta pista artean jarraituko dugu Bizkargi tontorreraino. Handik Gorozikara jaitsiko gara, ostean auzoa Suerterekin lotzen duen pistatik jarraitzeko. Done Jakue bidearekin bat egin eta Gerekez eta Errigoiti zeharkatuko ditugu. Madalen auzotik Maiagara igoko gara. Gernikara jaistea besterik ez zaigu geratzen, Bastegietan Kosnoaga mendia inguratzen duen bidea hartuz.

Ruta circular en la que ascenderemos a una de las cimas más populares de nuestra comarca: el monte Bizkargi, con amplias vistas de los valles de Txorierrri e Ibaizabal. Partiendo de Gernika nos dirigimos a Muxika por Bilikario (Camino de Santiago), para continuar entre pistas hasta la cima de Bizkargi. Descendemos a Gorozika para seguir por la pista que une este núcleo con Suerte. Nuevamente por el camino de Santiago pasaremos por Gerekez y Errigoiti. Por el barrio de Madalen ascenderemos a Maiaga. Solo nos queda descender a Gernika, tomando el camino que desde Bastegieta bordea el monte Kosnoaga.



ZER IKUSI

- KM 6: Ugarte-Muxika
- KM 15: Bizkargi mendia eta Santa Kurtze basiliza
- KM 18: Gorozika, Muxika
- KM 33: Errigoiti
- KM 35: Maiaga mendia

QUÉ VER

- KM 6: Ugarte-Muxika
- KM 15: Monte Bizkargi y ermita de Santa Kurtze
- KM 18: Gorozika, Muxika
- KM 33: Errigoiti
- KM 35: Monte Maiaga





Oiz ezagutzen

Descubriendo Oiz



Irteera / Salida: Gernika-Lumo
Helmuga / Llegada: Gernika-Lumo
Zailtasuna / Dificultad: Ertaina-altua / Media-alta

Gernika atzean utzi eta Berrekondo erreka alboko ibilbideari jarraituko diogu. Pista gogor batetatik Berroia auzoraino igoko gara, eta bertan mahastiak zeharkatu ahal izango ditugu. Bidezidorretatik Urrutxua aldera joko dugu, eta, handik, errepidez, Maumara. San Kristobal basilizara igoko gara, pistaz-pista. Bertatik ikuspegi zoragarriaz gozatzeko aukera izango dugu. Itzulerako bidean, Golako erreka ertzearaino jaitsiko gara, eta, harekin batera, Berriondoraino jarraituko dugu. Hortik aurrera, Donejakue bidearen edertasunaz gozatzeko dugu Gernikaraino.

Abandonamos Gernika siguiendo el curso del Berrekondo. Una dura pista asciende hasta el barrio de Berroja, donde podremos pedalear entre viñedos. Entre senderos nos dirigimos a Urrutxua y desde aquí por carretera a Magunas. Continuamos hasta la ermita de San Cristobal, desde donde podremos disfrutar de unas vistas maravillosas. En el camino de vuelta descenderemos hasta la ribera del Golako, para seguir, paralelamente a éste, hasta Berriondo. A partir de este punto disfrutaremos de la belleza del Camino de Santiago hasta Gernika.



ZER IKUSI

- KM 9,5: Berroja upategia, Muxika
- KM 18,5 : Mauma, Muxika
- KM 26: San Kristobal basiliza, Oiz, Muxika
- KM 35: Zarrabenta, Mendata
- KM 37: Arratzu
- KM 39: Ajangiz

QUÉ VER


- KM 9,5: Bodega Berroja, Muxika
- KM 18,5 : Magunas, Muxika
- KM 26: Ermita San Cristóbal, Oiz, Muxika
- KM 35: Zarrabenta, Mendata
- KM 37: Arratzu
- KM 39: Ajangiz





Lamin eta itsaslaminen itzulia

Vuelta de las lamiás y las sirenas



Irteera / Salida: Bermeo
 Helmuga / Llegada: Bermeo
 Zailtasuna / Dificultad: Ertaina-altua / Media-alta

Bermeotik abiatuta, Mundaka aldera joko dugu, Santa Katalina inguru ederretik igarota. Handik aldapa gogorrean igoko gara Katillotxuko mendileroraino. Bertan dago Urdaibaiko trikuharri multzoetako bat. Goierriko eta Zabaleko parajeak zeharkatu eta Sollubeko tontorrerantz jarraituko dugu, pistaz-pista, Tribisburuko nekropoli erromatarren ondotik pasatuz. Atsedean hartu eta mendi honen ikuspegiak gozatu ondoren, Gaztelugatxe eta Matxitxakora jaitsiko gara. Bertako paisaia eta natura ondareaz gozatuko dugu Bermeora itzuli aurretik.

Partiendo de Bermeo la ruta se dirige a Mundaka, pasando por el bello entorno de Santa Catalina, para ascender en fuerte pendiente hasta el cordal de Katillotxu, donde se encuentra una de las estaciones dolménicas de Urdaibai. Continuamos por Goierri y Zabale, dirección a la cima de Sollube, pasando en el camino junto a la necrópolis romana de Tribisburu. Tras descansar y disfrutar de las vistas de este monte bocinero emprenderemos el descenso hacia Gaztelugatxe y Matxitxako, disfrutando de su belleza paisajística y su interés naturalístico.



ZER IKUSI

- KM 0: Bermeoko portua
- KM 3: Santa Katalina, Mundaka
- KM 9: Katillotxuko trikuharriak, Mundaka
- KM 17: Sollube, Bermeo
- KM 32: Gaztelugatxe, Bermeo
- KM 37: Matxitxakoko itsasargia, Bermeo

QUÉ VER


- KM 0: Puerto de Bermeo
- KM 3: Santa Catalina, Mundaka
- KM 9: Dólmenes de Katillotxu, Mundaka
- KM 17: Sollube, Bermeo
- KM 32: Gaztelugatxe, Bermeo
- KM 37: Faro de Matxitxako, Bermeo





Urdaibaiko zapoak

Sabores de Urdaibai



Irteera / Salida: Gernika-Lumo
 Helmuga / Llegada: Gernika-Lumo
 Zailtasuna / Dificultad: Ertaina-altua / Media-alta

Gernikatik Belendiz aldera abiatuko gara, bidegorritik. Handik Arrolaraino igoko gara, jarraian Nabarnizeraino jaitsi eta bertan Illuntzar mendiko igoyerari aurre egiteko. Gailurrera iritsi gabe, Airoko pagadirantz joko dugu eta han, Ereñora eramango gaituen pista zabala hartuko dugu. Akordarantz jarraitu eta artadian sartuko gara. Bertan Atxarre tontor ederrera igo ahal izango gara. Kanalara jaitsi eta Gautegiz-Arteagarantz jarraituko dugu, marea errotaren, gazteluaren eta Urdaibai Bird Centerren ondotik pasatuz Urdaibaiko padurako pasabideetatik egingo dugu ibilbidearen azken zatia.

Partimos de Gernika en dirección a Belendiz, por el bidegorri. Ascendemos hasta Arrola para continuar hacia Nabarniz y afrontar la subida al monte Illuntzar. Sin alcanzar la cima nos dirigimos al hayedo de Airo, donde tomaremos la amplia pista que nos lleva hasta Ereño. Continuamos hacia Akorda y cruzaremos el encinar, donde podremos subir a la bella cima de Atxarre. Descendemos a Kanala y continuamos hacia Gautegiz-Arteaga, pasando junto al molino de marea, el castillo y el Urdaibai Bird Center. Afrontamos el último tramo del recorrido por las pasarelas de la marisma de Urdaibai.



ZER IKUSI

- KM 22: Airoko pagadia, Nabaniz
- KM 28: Ereño
- KM 34,5: Garteiz (Akorda), Ibarrangelu
- KM 35: Atxarreko San Pedroro igoera, Ibarrangelu
- KM 41: Ozolloko marea-errotta, Gautegiz-Arteaga
- KM 42: Arteagako gaztelua, Gautegiz-Arteaga
- KM 43: Urdaibai Bird Center, Gautegiz-Arteaga

QUÉ VER

- KM 22: Hayedo de Airo, Nabaniz
- KM 28: Ereño
- KM 34,5: Garteiz (Akorda), Ibarrangelu
- KM 35: Desvío hacia San Pedro Atxarre, Ibarrangelu
- KM 41: Molino de mareas Ozollo, Gautegiz-Arteaga
- KM 42: Castillo de Arteaga, Gautegiz-Arteaga
- KM 43: Urdaibai Bird Center, Gautegiz-Arteaga





Kostaldeko herriak I Pueblos costeros I



Irteera / Salida: Gernika-Lumo
Helmuga / Llegada: Bermeo
Zailtasuna / Dificultad: Baxua / Baja



Gernika-Lumotik Bermeora. Ibilbide erraz honek Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren ezkeraldeko kostaldeko herrietatik egiten du bidea, eta Forua, Murueta, Busturia, Sukarrieta eta Mundaka bezalako herri ederrak erakutsiko dizkigu. Horiek guztiak itsasadarrarekin edota estuarioarekin kontaktuan daude, eta gure eskualdeko txorikor ederrenetako batzuk gordetzen dituzte.

Desde Gernika-Lumo a Bermeo. Este itinerario de fácil recorrido por los pueblos costeros de la margen izquierda de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, nos descubre bellas localidades como Forua, Murueta, Busturia, Sukarrieta y Mundaka. Todas ellas en contacto con la ría y su desembocadura, que albergan algunos de los rincones más bellos de nuestra comarca.



ZER IKUSI

- KM 3: Foruko erromatar herrixka
- KM 8: Ekoetxea Urdaibai, Busturia
- KM 10: San Antonio hondartza, Busturia
- KM 12: Portua eta Santa Katalina basiliza, Mundaka
- KM 17: Bermeoko portua

QUÉ VER

- KM 3: Poblado romano de Forua
- KM 8: Ekoetxea Urdaibai, Busturia
- KM 10: Playa San Antonio, Busturia
- KM 12: Puerto y ermita de Santa Catalina, Mundaka
- KM 17: Puerto de Bermeo





Gaztelugatxeko Doniene San Juan de Gaztelugatxe

02

Km 27,4 700m 1h 45'

Irteera / Salida: Bermeo
Helmuga / Llegada: Bermeo
Zailtasuna / Dificultad: Ertaina / Media



Bermeotik abiatuko gara Bakio aldera. Bidean Matxitxakora desbideratuko gara. Kantauri itsasoa eta Gaztelugatxeko paisaia ederra izango ditugu han ikusgai. Babestutako naturgune batean gaude, garrantzi paisajistiko eta naturalistiko handiko lekuan. San Pelaioko begiratokitik igaro ondoren, Bakiora jaitsiko gara, eta bertako hondartzan atsedean hartu ahal izango dugu, Gaztelugatxeko Donienera itzuli aurretik, Eneperiko begiratokitik igarota. Eneperitik Lurgorriara joko dugu eta handik jaitsiera atsegin bat besterik ez zaigu geratuko Bermeoko portura itzultzeko.

Partimos de Bermeo en dirección a Bakio. A medio camino nos desviamos hacia Matxitxako, desde donde disfrutamos de unas preciosas vistas hacia el Cantábrico y hacia Gaztelugatxe. Nos encontramos en un espacio protegido, de gran interés paisajístico y naturalístico. Tras pasar por el mirador de San Pelaio descendemos a Bakio, donde podremos descansar en su playa antes de volver hacia San Juan de Gaztelugatxe pasando por el mirador de Eneperi. Desde Lurgorri, solo nos queda un agradable descenso hasta el puerto de Bermeo.



ZER IKUSI

- KM 0: Bermeoko portua
- KM 7: Matxitxakoko itsasargi/behatokia, Bermeo
- KM 12: San Pelaioko begiratokia, Bakio
- KM 16: Bakioko hondartza
- KM 19: Eneperiko begiratokia, Bakio

QUÉ VER

- KM 0: Puerto de Bermeo
- KM 7: Faro/observatorio de Matxitxako, Bermeo
- KM 12: Mirador de San Pelaio, Bakio
- KM 16: Playa de Bakio
- KM 19: Mirador Eneperi, Bakio



BAKIO
Hondartza / Playa (16 km)

ENEPERI
Begiratokia / Mirador (19 km)

GAZTELUGATXE
Doniene / San Juan

SAN PELAIO
Begiratokia / Mirador (12 km)

Lurgorri (7 km)

MATXITXAKO
Behatokia / Observatorio (7 km)

BERMEO (0 km)

urdaibai
basque reserve

1 km

02

“BERMEO ETA BAKIO ARTEKO KOSTALDEKO ERREPIDEK DOAN IBILBIDEA, GAZTELUGATXEKO BIOTOPO BABESTUA ZEHARKATZEKO AUKERA ESKAINTZEN DIGUNA; EDERTASUN HANDIKO NATURGUNA”

“RUTA POR LA CARRETERA COSTERA ENTRE BERMEO Y BAKIO, QUE NOS PERMITIRÁ CRUZAR EL BIOTOPO PROTEGIDO DE GAZTELUGATXE, UN ENCLAVE DE GRAN BELLEZA”

info+ track




Urdaibaiko barnealdea I

Interior de Urdaibai I



Irteera / Salida: Muxika
Helmuga / Llegada: Muxika
Zailtasuna / Dificultad: Ertaina / Media



Muxikatik abiatuta, Gerekizko mendaterantz joko dugu, bidean Ugarte auzotik igaroz. BI-2121 errepidetik Olabarrira jaitsiko gara eta han BI-3213 errepidea hartuko dugu, Errigoitira igotzeko. Uria auzoaren ondoko bidegurutzean, Bizkaigane desbideratuko gara, bertako ikuspegi bikainez gozatzeko. Forurako jaitsiera Metxikatik egingo dugu, eta gero Gernikarantz jarraituko dugu, jarraian Mendataraino igotzeko. Bertan indarrak berriro ondoren, Muxikara jaitsiko gara, Lamikiz auzotik.

Partiendo de Muxika, nos dirigimos al puerto de Gerekiz pasando por el barrio de Ugarte. Descendemos hasta Olabarrí, donde abandonamos la carretera BI-2121 para ascender por la BI-3213 hacia Errigoiti. Junto al barrio de Uria nos desviamos hacia Bizkaigane, para disfrutar de sus espléndidas vistas. Realizamos el descenso a Forua por Metxika, para continuar luego hacia Gernika, donde iniciamos la larga subida hasta Mendata. Tras retomar fuerzas abordamos el descenso a Muxika, por el barrio de Lamikiz.



ZER IKUSI

- KM 1,7: San Bizente Martiria eliza (Erdi Aroa), Muxika
- KM 16: Bizkaiganeko begiratokia, Errigoiti
- KM 23: Foruko erromatar herrixka
- KM 31: Mendata

QUÉ VER

- KM 1,7: Iglesia de S. Vicente Martir (Edad Media), Muxika
- KM 16: Mirador de Bizkaigane, Errigoiti
- KM 23: Poblado romano de Forua
- KM 31: Mendata





Kostaldeko herriak II Pueblos costeros II



Irteera / Salida: Gautegiz-Arteaga
Helmuga / Llegada: Gautegiz-Arteaga
Zailtasuna / Dificultad: Ertaina / Media



Arteagako gaztelua Gautegiz-Arteagako bihotzean dago, eta bertatik abiatzen da gure eskualdeko kostaldeko ibilbide ederrenetako bat. Kostaldeko errepidetik egingo dugu bidearen lehen zatian Lajida eta Lagako hondartzetatik pasatuz. Ibarrangelura heltzean Elantxobeko arrantza-portura hurbiltzeko aukera izango dugu. Earantz jarraituko dugu, itsasertzeko bidetik, eta bidean Natxitua auzo ederra zeharkatuko dugu. Ean atsedean hartu ondoren, Gautegiz-Arteagara bueltatuko gara, barrualdetik, Ispasterretik Ereño aldera doan bidetik.

El Castillo de Arteaga se alza en el corazón de Gautegiz-Arteaga, desde donde parte una de las rutas costeras más bellas de nuestra comarca. La carretera de la costa se dirige hacia las playas de Lajida y Laga para continuar hacia Ibarrangelu, donde nos desviaremos para acercarnos al puerto pesquero de Elantxobe. Continuaremos hacia Ea, por el camino del litoral pasando por el bello barrio de Natxitua. Tras descansar en Ea, la vuelta la realizaremos por el camino del interior desde Ispaster a Ereño y Gautegiz-Arteaga.



ZER IKUSI

- KM 0: Arteagako gaztelua, Gautegiz-Arteaga
- KM 7: Lajida hondartza, Ibarrangelu
- KM 11: Laga hondartza, Ibarrangelu
- KM 16: Elantxobe
- KM 22: Ea
- KM 44: Bird Center eta Ozollo, Gautegiz-Arteaga

QUÉ VER

- KM 0: Castillo de Arteaga, Gautegiz-Arteaga
- KM 7: Playa de Lajida, Ibarrangelu
- KM 11: Playa Laga, Ibarrangelu
- KM 16: Elantxobe
- KM 22: Ea
- KM 44: Bird Center y Ozollo, Gautegiz-Arteaga



“EZAGUTU ITZAZU ITSASADARRAREN ESKUINALDEKO HERRIETAKO BATZUK”

“DESCRIBE ALGUNOS DE LOS PUEBLOS DE LA MARGEN DERECHA DE LA RÍA DE URDAIBAI”



info+

track

1 km

Izaro

urdaibai
basque reserve





Oiz handia El coloso de Oiz

05

Km 44,5 1120m 3h



Irteera / Salida: Gernika-Lumo
Helmuga / llegada: Gernika-Lumo
Zailtasuna / Dificultad: Altua / Alto

Oiz tontorrera doan ibilbide hau sasoi fisiko onean dauden pertsonentzako da. Gernika-Lumotik abiatuta, ibilbidea Arratzutik igarotzen da Munitibarrera bidean. Bertan, Ganbeko bidegurutzeraino jarraitzen du, Oizera igotzen den hormigoizko pista hartzeko. Tontorrean atsedean hartzea merezi du, ikuspegi zoragarriaz gozatu ahal izateko. Arreta handiz pistatik jaitsi eta errepidera heltzean ezkerra joko dugu, Urrutxua aldera. Behin Bizkaiko begiratokia atzean utzita, Mendatako bidetik Gernikara itzuliko gara.

El recorrido de Oiz está pensado para personas con una buena forma física. Partiendo de Gernika-Lumo, el itinerario pasa por Arratzu y se dirige a Munitibar, donde comienza la subida hasta el cruce de Ganbe. Desde este barrio la ascensión a este monte bocinero se realiza por pista hormigonada. Ya en la cima descansaremos mientras disfrutamos de unas espléndidas vistas. El descenso por la pista lo haremos con gran cuidado. Una vez en la carretera pararemos en el Balcón de Bizkaia antes de regresar a Gernika por Mendata.



ZER IKUSI

- KM 6: Arratzu
- KM 24: Oiz
- KM 30: Bizkaiko begiratokia
- KM 38: Elexalde-Mendata

QUÉ VER

- KM 6: Arratzu
- KM 24: Oiz
- KM 30: Balcón de Bizkaia
- KM 38: Elexalde-Mendata



URDAIBAI basque reserve

“RUTA MUY INTENSA, QUE PARTIENDO DESDE GERNIKA-LUMO ALCANZA LA CIMA DEL MONTE OIZ, EN EL LÍMITE CON LAS COMARCAS DE LEA Y DURANGALDEA”

“IBILBIDE GOGORRA, GERNIKA-LUMOTIK ABIATUTA OIZ MENDIAREN TONTORRERA IRISTEN DENA, LEA ETA DURANGALDEA ESKUALDEEKIN MUGAN”

Bizkaiko begiratokia Balcón de Bizkaia

URRUTXUA

OIZ

05



Urdaibaiko barnealdea II


Interior de Urdaibai II

06

Km 56

1025m


2h 30'



Irteera / Salida: Korte Zubu
Helmuga / Llegada: Korte Zubu
Zailtasuna / Dificultad: Ertaina / Media

Paduren paisaiatik hasi eta Urdaibaiko itsasadarraren eskuinaldeko herri eta auzorik altuenetaraino. Korte Zubutik abiatuta, ibilbide hau Ereño eta Nabarniz arteko ibar estu eta garaietaraino igotzen da, eta, ondoren, Belendiz eta Arratzura jaisten da. Behin Munitibarren, Bizkaiko begiratokia igoko gara eta Urrutxurantz jarraituko dugu. Mendatatik jaitziko gara Gernikara. Korte Zubura bueltan, Santimamiñeko haitzulora desbideratzeko aukera izango dugu.

Desde el paisaje de las marismas hasta los pueblos y barrios más altos de la margen derecha de la ría de Urdaibai. Partiendo de Korte Zubu, este recorrido asciende hasta los estrechos y altos valles entre Ereño y Nabarniz, para descender posteriormente a Belendiz y Arratzu. Una vez en Munitibar afrontaremos el ascenso al Balcón de Bizkaia para continuar hacia Urrutxua y descender a Gernika por la carretera de Mendata. De regreso a Korte Zubu podemos desviarnos a la Cueva de Santimamiñe.



ZER IKUSI

- KM 6: Ereño
- KM 12: Nabarniz
- KM 22: Arratzu
- KM 35: Bizkaiko begiratokia
- KM 43: Mendata
- KM 47: Ajangiz
- KM 54: Basondo, Santimamiñe eta Oma Korte Zubin

QUÉ VER

- KM 6: Ereño
- KM 12: Nabarniz
- KM 22: Arratzu
- KM 35: Balcón de Bizkaia
- KM 43: Mendata
- KM 47: Ajangiz
- KM 54: Basondo, Santimamiñe y Oma en Korte Zubu

URDAIBAICO BARNEALDETIK BUELTA, ITSASADARRÉTIK HURBILEN DAUDEN HERRIÉTÁTIK HASI ETA OIZ MENDIAREN MAGALEÁN DAUDEN GARAIENETARAINO

"VUELTA POR EL INTERIOR DE URDAIBAI, DESDE LOS PUEBLOS MÁS CERCANOS A LA RÍA HASTA LOS MÁS ALTOS, EN LAS ESTRIBACIONES DEL MONTE OIZ"



Hondartzetako itzulia

Vuelta de las playas

07

Km 68,5 750m 3h

Irteera / Salida: Gernika-Lumo
Helmuga / Llegada: Gernika-Lumo
Zailtasuna / Dificultad: Ertaina / Media



Gernikatik Munitibarrerantz joko dugu, eta han ezkerrera egingo dugu Lekeitiorako errepidea hartzeko, Lea ibaiaren eta honen ibilbidearen parean doana. Merexi du atseden hartzea eta kostaldeko herri eder hau bisitatzeko. Lekeitiotik Ereñora joango gara, eta handik Ibarangelurantz jarraituko dugu. Herria zeharkatu eta Laga eta Laida hondartzetara doan bidea hartuko dugu. Gernikara itzuli aurretik Kanalana gelditzeko aukera izango dugu ere, Urdaibaiko eta bertako paduretako edertasunaz gozatu ahal izateko.

Desde Gernika nos dirigimos hacia Munitibar, donde giraremos a la izquierda para tomar la carretera hacia Lekeitio, que discurre paralela al río Lea y su ruta. Merece la pena tomar un respiro y visitar esta bella villa costera. Desde Lekeitio nos dirigimos a Ereño, desde donde descenderemos hasta la localidad de Ibarangelu y sus famosas playas de Laga y Laida. Antes de regresar a Gernika podemos hacer una parada en Kanala, para disfrutar del esplendor de Urdaibai y sus marismas.



ZER IKUSI

KM 31: Lekeitio
 KM 53: Laga hondartza, Ibarangelu
 KM 56: Laida hondartza, Ibarangelu
 KM 59: Kanala - Urdaibaiko begiratokia, Sukarrieta

QUÉ VER

KM 31: Lekeitio
 KM 53: Playa de Laga, Ibarangelu
 KM 56: Playa de Laida, Ibarangelu
 KM 59: Kanala - Mirador de Urdaibai, Sukarrieta



urdaibai
basque reserve

“KOSTALDEA ETA BARNEALDEA IBILBIDE BEREAN. URDAIBAICO BIHOTZETIK LEKEITIOKO KOSTALDEKO HIRIBILDURAINO”

“COSTA E INTERIOR EN UNA MISMA RUTA. DESDE EL CORAZÓN DE URDAIBAI HASTA LA VILLA COSTERA DE LEKEITIO”

info+ track

1 km



Urdaibaiko mendateak

Puertos de montaña de Urdaibai



Irteera / Salida: Muxika
Helmuga / Llegada: Muxika
Zailtasuna / Dificultad: Alta / Alta

Urdaibaiko mendate esangratusenetako batzuetatik igarotzen den ibilbide ederra eta gogorra. Muxikatik abiatuta, Muniketatik, Bizkaiko begiratokitik eta Nabarnizetik igaroko gara, ondoren, itsasadarrera jaisteko. Ibaia Gernikan zeharkatu eta ezkerreko mendateetara joko dugu. Gogorrenari aurre egingo diogu lehenik, Paresiri, eta, ondoren, Jainko (Arrieta) eta Errigoitiko mendate leunagoetara joko dugu. Ibilbidea jaitsiera atsegin batekin amaitzen da, ibilbide gogorraren ondoren eskertuko duguna.

Preciosa y dura ruta que transcurre por algunos de los puertos de montaña más significativos de Urdaibai. Partiendo de Muxika ascenderemos a Muniketa, Balcón de Bizkaia y Nabarniz, para después cruzar la ría por Gernika y dirigirnos a los puertos de montaña de la margen izquierda. Afrontaremos el más exigente, el de Paresi, para posteriormente ascender a las cotas menores de Jainko (Arrieta) y Errigoiti. La ruta finaliza con un placentero descenso que agradeceremos tras esta exigente ruta.



ZER IKUSI

- KM 10: Muniketako mendatea
- KM 20: Bizkaiko begiratokia
- KM 42: Nabarnizko mendatea
- KM 70: Paresiko mendatea (Otsagarai)
- KM 77: Jainkoko mendatea
- KM 82: Errigoitiko gaina

QUÉ VER

- KM 10: Puerto de Muniketa
- KM 20: Puerto del Balcón de Bizkaia
- KM 42: Puerto de Nabarniz
- KM 70: Puerto de Paresi (Otsagarai)
- KM 77: Puerto de Jainko
- KM 82: Alto de Errigoiti





Forua-Barrutiabaso familian

Forua -Barrutiabaso en familia



01

Km
9,2

90m

1h



Irteera / Salida: Gernika-Lumo
Helmuga / Llegada: Gernika-Lumo
Zailtasuna / Dificultad: Baxua / Baja

Ibilbide zirkular eta erraza goi estuarioko pasareletatik eta inguruan dauden herri eta auzoetatik. Gernikatik abiatuta Forua joko dugu, bidean San Kristobal basilizaren, Urdaibai dorrearen, Atxagako harrobiaren eta Foruko erromatar herrixkaren ondotik igaroz. Forun jolas-parkeak eta tirolina luze bat aurkituko ditugu, txikienen gozamenerako. Itsasadarrera jaitsiko gara (zorte apur batekin zikoinen bat ikusiko dugu) eta zubitik beste aldera igaroko gara. Barrutiabaso eta Barrutia arteko bidea lasaia eta oso atsegina izango da. Bidegorritik bueltatuko gara Gernikara.

Ruta circular, de fácil recorrido, por las pasarelas del estuario superior y los pueblos y barrios más cercanos. Partiendo de Gernika nos dirigimos a Forua, pasado junto a la ermita de San Cristóbal, la torre Urdaibai, la cantera de Atxaga y el poblado romano de Forua. Forua cuenta con una zona de juegos y una gran tirolina, ideal para los más pequeños. Descendemos al paseo de la ría (con suerte veremos alguna cigüeña) y cruzamos al otro lado por la pasarela. El camino entre Barrutiabaso y Barrutia es tranquilo y muy agradable. El bidegorri nos traerá de vuelta a Gernika.



ZER IKUSI

- KM 1,6: San Kristobal basiliza eta Urdaibai dorrea
- KM 3,3: Foruko erromatar herrixka
- KM 5: Itsasadarreko pasarela
- KM 5,7: Iturri-labaderoa
- KM 7: Barrutia

QUÉ VER

- KM 1,6: Ermita de San Cristobal y Torre Urdaibai
- KM 3,3: Poblado romano de Forua
- KM 5: Pasarela sobre la ría
- KM 5,7: Fuente-lavadero
- KM 7: Barrutia





Kanpantxuko buelta

Vuelta a Kanpantxu



Irteera / Salida: Gernika-Lumo
 Helmuga / Llegada: Gernika-Lumo
 Zailtasuna / Dificultad: Baxua / Baja

Kanpantxuko bueltak Urdaibaiko landa-paisaiaren edertasuna erakutsiko digu. Bertan, baserri ederrak, landazabal-atlantikoaren paisaia, Berrekondo erreka eta honen erriberan eraiki ziren errota eta burdinola batzuk ikusi ahalko ditugu. Eperlandako bidegurutzeraino igo ondoren, bidezidorra Kanpantxuko herrigune nagusira jaisten da. Bisitatu baseliza eta gozatu bertako frontoiaz edo jolas-parkeaz.

La vuelta a Kanpantxu nos descubre la belleza del paisaje rural de Urdaibai, donde destacan bellos caseríos, el paisaje de la campiña atlántica, el arroyo de Berrekondo y algunos de los molinos y ferrerías que se alzaron en sus riberas. Tras la subida hasta el cruce de Eperlanda el sendero descende por el núcleo principal de Kanpantxu. Visita su ermita y disfruta de su frontón o zona de juegos.



ZER IKUSI

- KM 1,7: Oka erreka Arabietatik pasatzean
- KM 3: Aristieta Jauregia
- KM 3,4: Goikoerrotta
- KM 4,4: Estiloztako errota zaharra
- KM 7: Kanpantxuko herrigune nagusia

QUÉ VER

- KM 1,7: Río Oka a su paso por Arabieta
- KM 3: Palacio de Aristieta
- KM 3,4: Goikoerrotta
- KM 4,4: Viejo molino de Estilozta
- KM 7: Núcleo principal de Kanpantxu



"URDAIBAICO LANDAZABAL ATLANTIKOAREN PAISAIATIK FAMILIAN EGITEKO IBILBIDE ZIRKULAR ERRAZA. EZAGUTU KANPANTXUKO AUZOA, AJANGIZEN"

"UN CIRCUITO FAMILIAR DE FÁCIL RECORRIDO POR EL BELLO PAISAJE RURAL DE LA CAMPIÑA ATLANTICA DE URDAIBAI. DESCUBRE EL BARRIO DE KANPANTXU (AJANGIZEN)"

info+ track

0,5 km



Itsasadarreko kanaletik familian

Corte de la ría en familia



Irteera / Salida: Gernika-Lumo
 Helmuga / Llegada: Gernika-Lumo
 Zailtasuna / Dificultad: Baxua / Baja

Ibilbide lasai eta erraza itsasadarren ertzeko pasealekutik, Errenteriako zubitik abiatu eta Muruetako puntaraino doana, inolako galerarik gabe. Joaneko bidea ezkerretatik egingo dugu, eta itzuleran aldez, erdibidean dagoen zubia zeharkatuko dugu, ur gora eskuinaldeko ibaiertzetik egiteko. Ibilbide hau oso aproposa da haurrekin bizikletaz ibilbideak egiten hasteko eta estuarioko ekosistemaz eta abifauna aberatsaz gozatzeko. Ez utzi prismatikoak etxean!

Recorrido tranquilo y fácil por el paseo del corte de la ría, que desde el puente de Errenteria y hasta la punta de Murueta no presenta pérdida alguna. El camino de ida lo haremos por la margen izquierda, mientras que a la vuelta, a medio camino, cruzaremos la pasarela para recorrer, aguas arriba, el paseo de la margen derecha. Es ideal para comenzar a hacer recorridos en bici con niñas y niños y para disfrutar del ecosistema del estuario y su rica avifauna. ¡No te dejes los prismáticos en casa!



ZER IKUSI

- KM 1: Urbietako kiroldegia (futbola, rugbya eta frontoia)
- KM 2,6: Itsasadarreko zubia
- KM 4,9: Muruetako punta (padura, abifauna...)
- Oharra: Urbietako leku egokia da haurrek jolasteko, eta hainbat zerbitzu eta bizikleten aparkaleku ditu.

QUÉ VER

- KM 1: Polideportivo de Urbietako (futbol, rugby y frontón)
- KM 2,6: Pasarela sobre la ría.
- KM 4,9: Punta de Murueta (marismas, avifauna...)
- Nota: Urbietako es un buen lugar para que jueguen niñas y niños, que cuenta con diversos servicios y aparcabici.



"IBILBIDE LAUA ETA FRESKOA ITSASADARRAREN ERTZETIK, KANAL ARTIFIZIALAREN PARETIK, URDAIBAIKO PADURAREN IKUSPEGI EDERRA. IZANGO DUGU ZAIN MURUETAKO PUNTAN"

"RECORRIDO LLANO Y FRESCO POR EL CAMINO DEL CORTE DE LA RÍA, PARALELO AL CANAL ARTIFICIAL. NOS ESPERAN EN LA PUNTA UNAS EXPLENDIDAS VISTAS DE LAS MARISMAS DE URDAIBAI"





Ekoetxea Urdaibai (Torre Madariaga)



04

Km 17,4
234m
2h



Irteera / Salida: Gernika-Lumo
Helmuga / Llegada: Gernika-Lumo
Zailtasuna / Dificultad: Ertaina / Media

Ibilbide lasaia eta erraza egingo dugu, Gernikatik Ekoetxea Urdaibairaino, espaloi zabaletatik, bidegorritik eta auzo-bideetatik doan ibilbide honetan. Ibilbidean zehar Forua, Murueta eta Busturiko herrietatik igaroko gara, eta bertan geldialdiren bat egin ahal izango dugu interesgune batzuk ezagutzeko edota haur-parkeetan jolasteko. Gernikara San Kristobaletik itzuliko gara, ibilbide bera deseginaz. Itzulerarako autobusa edo trena ere har dezakegu.

Recorrido muy tranquilo y fácil de realizar, en el que iremos desde Gernika hasta Ekoetxea Urdaibai (Busturia), alternando aceras anchas con carril bici, y algún que otro camino vecinal. A lo largo de la ruta pasaremos por las localidades de Forua, Murueta y Busturia, en las que podremos realizar alguna parada para conocer algunos de los lugares de interés o para disfrutar en los parques infantiles. Regresaremos a Gernika por San Cristóbal, desandando el mismo recorrido. También podemos coger el bus o tren para la vuelta.



ZER IKUSI

KM 3. Foruko erromatar herrixka
KM 4,7. Murueta
KM 7,5. Altamira
KM 9,2. Ekoetxea Urdaibai
KM 10,4. San Kristobal

QUÉ VER

KM 3. Poblado romano de Forua
KM 4,7. Murueta
KM 7,5. Altamira
KM 9,2. Ekoetxea Urdaibai
KM 10,4. San Kristobal



"EKOETXEA URDAIBAIK ASTERO PROGRAMATZEN DIREN JARDUEREN ESKAINTZA ZABALAZ ETA INGURUNE PAREGABEAZ GOZATZEKO AUKERA EMATEN DIGU"

"EKOETXEA URDAIBAI NOS PERMITE DISFRUTAR DE UNA AMPLIA OFERTA DE ACTIVIDADES QUE SE PROGRAMAN SEMANALMENTE, ADEMÁS DE UN ENTORNO EXCEPCIONAL"



info+ track

1 km

GERNIKA-LUMO



urdaibai

basque reserve

www.turismourdaibai.com

